

# 2020

# Urteko Txostena

## Jardueren Memoria

Datu Sozioekonomikoak

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

**Batzar Nagusia**

**José Antonio Santano Clavero.** Irungo Alkatea.
**Txomin Sagarzazu Anzisar.** Hondarribiko Alkatea.

**Administrazio Kontseilua**

**Miguel Angel Páez Escamendi.** Presidentea.
**María Serrano Olascoaga.** Presidenteordea.
**Juncal Eizaguirre Rosa.** Batzordekidea.
**Xabier Iridoy Olaizola.** Batzordekidea.
**Santiago Jimenez Ussia.** Batzordekidea.
**Jokin Melida Beltran de Heredia.** Batzordekidea.
**Iñigo Manrique Cía.** Batzordekidea.
**Juan María Altuna Muñoa.** Batzordekidea.
**Estitxu Urtizberea Sorzabal.** Batzordekidea.
**Eva Fernández Tolosa.** Idazkaria.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

**Zuzendaritza taldea**

Zuzendari Gerentea.
**Eva Fernández Tolosa.**

Lehiakortasuna eta Berrikuntza.
**Silvia Istillarte Pardo.**
Formakuntza eta Enplegua.
**Jose María Belloso Loyarte.**
Ekintzailetza eta Jarduera Berria.
**Izaskun Iridoy Olaizola.**
Turismoa.
**Cristina Gutiérrez Alonso.**
Behatokia, Europako Lankidetza eta Partzuergoa.
**Vicky Alquezar Schepens.**
Zerbitzu Orokorrak.
**Miren Aranburu Garmendia.**



# Aurkibidea

Sarrera

01 Lehiakortasuna eta Berrikuntza

02 Formakuntza eta Enplegua

03 Ekintzailetza eta Jarduera Berria

04 Turismoa

05 Behatokia, Europako Lankidetza eta Partzuergoa

2020 Bidasoa bizirik kopurutan

2020 Urtekari Sozioekonomikoa

Eskerronak

# Sarrera

2020. urtea oso urte berezia izan da COVID-19aren pandemiaren eraginez. Pandemiak eragina izan du Bidasoa bizirik-en jardueran, sektore, jarduera eta harreman guztietan bezala. Esan dezakegu gizarteak eta horren antolaketak pandemiaren bilakaerara egokitu egin behar izan direla.  Lehen fase batean, jarduera antolatu zen langile guztiek modu telematikoan lan egin ahal izan zezaten eta, mugikortasun neurriak aldatu eta arindu ahala, zerbitzuak berriz ere modu presentzialean emateari ekin genion, baina horretarako prestatu zen kontingentzia-planak agindutakoaren arabera jokatuz betiere. Ekitaldiaren amaieran, esan daiteke enpresan zerbitzuak emateko modua aldatu dela, gaur egun modu mistoan eskaintzen baititugu (aurrez aurre eta online), eta uste dugu aldaketa hori geratzeko dagoela hemen, eta etorkizunean ere horrela emango ditugula zerbitzuak.

Ekitaldi berezi eta zail honetan, aipagarriak dira Udalekin batera gauzatu diren jarduerak, Udal bakoitzak hiriaren ehun ekonomiko eta sozialean pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko diseinatu eta finantzatu dituen sustapen-plan espezifikoak abian jartzeko: Irun Aurrera eta Itxeki Hondarribia. Sozietateak bere bitarteko pertsonal eta materialak artikulatu zituen plan horien diseinuan eta exekuzioan laguntzeko. Plan horiek beste administrazio batzuek garatutakoen osagarri dira, baina gure hirietako ETEen eta lan bila dabiltzanen arazo eta kasuistikara egokituta, eta pandemiaren eraginak arintzeko balio izan dute.

Bidasoa bizirik-etik arretaz zaindu dugu testuingurua eta harremanetan egon gara zuzenean eta etengabe ehun horrekin, hartutako neurriak ahalik eta egokienak izateko, etengabe sortzen zihoan informazioa modu antolatu batean jakinarazteko eta ehun sozioekonomikoak helarazten zigun informazioa aztertzeko eta administrazio eskudunei igortzeko.

2020an ere, aurreko urteetan baino gehiago, elkarlana eta berrikuntza izan dira lan-ardatz nagusiak Bidasoa bizirik-en, Irungo eta Hondarribiko udalek emandako kudeaketa-agindu eta -planen babespean, bere politika eta jarduerak diseinatzeko eta ezartzeko.

Ziurgabetasuneko egoera honetan, proaktiboak izan gara enpresei laguntzeko eta enplegua sustatzeko eskumenak dituzten erakundeen ekintza eta deialdiei dagokienez eta, bitartekari gisa arituta, politika horiek gure lurraldera hurbildu eta egokitu ditugu. Era berean, gure enpresa, ekintzaile eta lan bila dabiltzan pertsonen beharrak erakunde horiei helarazteko egin dugun lana ere garrantzitsua da, beren programak hautemandako egoera errealen arabera egokitzeko eta behar horiek kontuan hartzeko programa eta ekintzetan.

Urtero presentzialki egiten ditugun ekimen guztiak bertan behera geratu dira pandemiaren ondorioz: Enpleguaren Asteak, Krea Azoka... Edonola ere, horiek aldatu eta egokituta, ekintza xume eta sinpleagoak gauzatu ditugu online formatuan.

Enpleguaren alorrean, horrekin lotutako erakunde eta instituzioekiko harremana indartu da, bai eta enpresa-ehunarekiko harremana ere, funtsezkoa baita Bidasoaldeko herritarren enplegagarritasuna sustatzeko eta, ildo horretan, nabarmentzekoa da aurreko ekitaldian abiarazitako laneratzeko baliabideen sare bat. Sare horrek kolektibo ahulen laneratzea lortzeko proiektu bat jarri du martxan, eskualdeko hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, GFAren Elkar-Ekin programaren bidez. Enpleguko laneratze-ekintza garatu da Lanbideren «Proiektu berezien» deialdiaren esparruan, ostalaritzaren eta tabernari-zerbitzuaren esparruan ibilbide oso bat egitera bideratuta, hori baita eskualdean gaikuntza-eskari handienetakoa duen sektorea. Datozen ekitaldietan ere egiteko oinarriak jarri dira.

Berrikuntza eta enpresen arteko elkarlana sustatzea sozietatearen jardunaren ardatzetako bat da, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea helburu betiere. Via Irun Hiri Barruti Berritzailearen proiektuan aurreikusitako jarduerak garatzen jarraitu dugu. GFAk onetsitako proiektu estrategiko bat da. Gainera, ekonomia zirkularreko ekimenak sustatzeko proiektua abiarazi da. 4.0 Industriaren Irun eta Hondarribiko egoeraren azterlanaren eta horren ekintza-planaren jarraibideen arabera, aurreko urteetan egindako 25 diagnostikoei Spri eta Innobasqueren Hazinnova ekimenaren esparruan 20 enpresa berritan egindako berrikuntza ez-teknologikoko proiektuak txertatu ahal izan dizkiegu.

Bidasoko Hiri Behatokia oinarrizko tresna bat da gure analisi sozioekonomikorako, eta Irun eta Hondarribiari buruzko informazio-iturri garrantzitsua da, are gehiago aurten, lagungarria izan baitzaigu ehun horren egoeraren berri izateko, osotasunean.

Ekitaldi honetan agentziaren funtsezko ardatzetako bat sustatzen jarraitu dugu, ekintzailetza, hain zuzen. Enpresa berrien beharretatik oso gertu egon gara ekitaldi honetan, eta laguntza eman diegu hitzaren zentzu zabalenean: pandemiaren hasieratik sortzen joan den informazioa azaldu diegu, konfinamendu-garaian egin behar izan zituzten izapide guztietan lagundu diegu, laguntzak izapidetzeko laguntza eman diegu... azken batean, beren beharrak entzun ditugu eta, gure gaitasunen arabera posible zenean, erantzuna eman diegu, dela neurri zehatzak ezarrita, dela erakunde edo instituzio eskudunei horien berri emanda. Neurri zehatzen artean, Bidasoa bizirik-ek kudeatutako enpresa-zentroetako alokairuak arindu dira. Era berean, 2020an negozio berri bat ezartzeko azterlanei ekin dieten pertsonei laguntza ematen jarraitu dugu. Aipagarria da ekintzaileentzako beka-programa sendotzea, arrakasta handia izan baitu 2020an egin den bigarren edizioak, pandemia gorabehera.

Turismoaren alorrean, ekitaldi hau urte zaila izan da sektorearentzat, mugikortasunari jarritako mugak eta distantzia sozialeko neurriak direla eta. Ekitaldi osoan zehar harreman estua izan dugu sektorearekin, beren beharren berri izateko. Interneteko gure posizionamendua ere indartu dugu Visit Hondarribia Irun plataformaren bidez. Sare sozialekiko loturak ditu eta horren xedea da bi udalerrietako turismoko bitartekoak era berritzailean bultzatzea. Turismoa dinamizatzeko plana birformulatu da, bizi dugun egoerara egokituta.

2020an, gure jardueraren ildo nagusia izan da enplegua sortzeko edo enpresa-jarduera berriak sortzeko sektore berriak sustatzea eta horien inguruan ekintzak antolatzea. Nabarmentzekoa da aurten ekin zaiela ekonomia zirkularraren esparruko jarduerei eta, horiei esker, enpresarentzako alor horretako estrategia diseinatu ahal izango dugula.

Aipagarria da Bidasoa bizirik-ek izan duen rola EU Next Generation funtsetara aurkezteko moduko proiektuak identifikatu eta definitzeko. Horiek partekatu eta eztabaidatu ditugu zenbait eragilerekin definitu eta lehenesteko eta, gainera, proaktiboak izan gara horiek erakundeen aurrean aurkezteko.

2020an, Berdintasun Planaren esparruan, ekintza-plana onetsi da, datozen ekitaldietan garatuko dena. Kudeaketan eta gardentasunean aurrera egin dugu, prozedura guztiak egokitu baititugu Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berrira.

Beste urte batez ere, Irun Ekintzan Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko itunaren eta Hondarribia Abian enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko planaren esparruko jarduerak sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartu du Bidasoa bizirik-ek, eta Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoaren jarduerak koordinatu eta garatu ditu, jarduna pandemiaren ondoriozko egoerara egokituta betiere.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



# 01 Lehiakortasuna eta Berrikuntza

Aurtengoa ezohiko urtea izan da COVID-19a dela eta baina, hala eta guztiz ere, aurreikusita geneuzkan proiektu gehienak aktibatzea lortu dugu. Joerak aztertzeko eta aukerak esploratzeko lana egin dugu jarduera ekonomiko berria sustatzeko e-mobilityaren, garraioaren eta logistika aurreratuaren eta retail 4.0aren sektoreetan, Vialrun trenbide-eremuaren hiri-berroneratzeko proiektuari lotutako Hiri Barruti Berritzailea proiektuaren esparruan.

Era berean, industria-enpresetan 4.0 industriaren teknologiak erabiltzen hastea sustatzen jarraitu dugu eta berariazko proiektu bat gauzatu dugu nekazaritza eta elikagaigintzaren industrian konponbide teknologikoak txertatzeko.

Eskualdeko Hazinnova eragile gisa parte hartu genuen SPRIk eta Innobasquek sustatutako Hazinnova «berrikuntzaren sarbidea» programan.

Haren bidez, laguntza eman diegu programan parte hartu duten enpresei etorkizunean berrikuntzako ekintzen oinarri izan daitezkeen proiektuak hautematen.

Era berean eta aurreko urteetan bezala, laguntza teknikoa eman dugu txikizkako saltokien lehiakortasuna hobetzeko ekintzak abian jartzeko Hondarribia Abian programaren eta Irungo merkataritza biziberritzeko planaren esparruan.

## 01/1. Hiri-barruti berritzailea, inklusiboa eta adimenduna: e-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0. VIAIRUN. Sektorea espezializatzeko eta jarduera ekonomiko berria sortzeko proiektua, 1. fasea.

- E-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0 sektoreen analisia PESTEL metodologiaren arabera.

- Sektore publikoaren eta pribatuaren egungo eta etorkizuneko beharren analisia e-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0 sektoreetan.

- E-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0 sektoreetan emakumeak integratzeko mugen analisia.

- Aukerak elkarrekin sortzeko espazioa aktibatzea.

- Berrikuntzari laguntzeko programa abiaraztea, industrian konponbide teknologikoak garatzeko.




## 01/2. 4.0 industria

- Lurraldea garatzeko programa, 4.0 industriaren eredutik abiatuta - Gipuzkoako Foru Aldundia - Eskualdeetako garapen-agentziak. 10 enpresa.

Programa horren helburua da enpresei laguntzea 4.0 industriaren teknologiak txertatzeko beren erakundearen prozesuetan.
Programaren edizio honetan, zibersegurtasunari eta datuen analisiari buruzkoak izan dira proiektuak.

## 01/3. Nekazaritzako elikagaigintza eta bertako produktua

- Hona Ona proiektua. 8 enpresa

Proiektu honen helburua izan da sektoreko enpresen komunikazio-gaitasunak hobetzea, enpresaren eta haren produktuen inguruko kontakizun on bat eraiki dezaten, bai eta enpresaren kudeaketa hobetzea ere, guztia konponbide teknologikoak erabilita.

## 01/4. Berrikuntza, digitalizazioa eta gobernantza

- Goaz Logistic proiektua: eskualdeko logistikako gaitasunen AMIA analisia: 29 enpresa.

- Hazinnova programa «berrikuntza ez-teknologikoaren sarbidea», SPRI eta Innobasquerekin elkarlanean: 30 proiektu identifikatu eta aktibatzea 22 enpresatan.

- Enpresaren egoeraren diagnostikoa COVID-19aren ondoriozko alarma-egoeraren ondoren, Berrabiarazi izeneko tresna erabilita: 7 enpresa.

- Eskualdeko enpresa-ehunarekin bi tailer antolatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako gobernantza-eredua lantzeko: uztailak 15 eta abenduak 11.

- Enpresa-ikuspegia indartzea (Irun Ekintzan eta Hondarribia Abian). Proiektu honen helburua izan da enpresa-ehunaren ikuspegia indartzea Irunen eta Hondarribian dauden partaidetza-foroen ondoriozko ekintzei dagokienez, ekonomia eta enplegua sustatzeko.

## 01/5. Txikizkako merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea. Hondarribia Abian ekimenaren barruko jarduerak

- Merkataritzaren ekintza-plana koordinatzea eta jarraipena egitea.

- Saltokien berrirekiera prestatzeko tailerrak, alarma-egoeraren ondoren.
  - Prestatu zure denda berrirekitzeko: 25 parte-hartzaile.
  - Sinadura elektronikoa: 10 parte-hartzaile.




- Eguberrietako kanpaina: Fan Fan Fan Challenge. Aurten Eguberrietako kanpaina sare sozialen bidez egin da.

- Laguntza teknikoa Hondarribia ITXEKi talka-plana prestatzeko eta horren berri emateko.

- Informazio-zerbitzua: 63 kontsultari erantzun zaie.

## 01/6. Laguntza teknikoa Irungo merkataritza biziberritzeko planari.

- Laguntza teknikoa merkataritza-mahaia dinamizatzeko eta merkataritzako plan estrategikotik eratorritako ekintzak planifikatzeko.

- Saltokien berrirekiera prestatzeko tailerrak, alarma-egoeraren ondoren.
  - Prestatu zure denda 0. egunerako: 38 parte-hartzaile
  - Eta orain, zer? Merkataritza erresilientea: 15 parte-hartzaile.




- Laguntza teknikoa Irun Aurrera talka-plana prestatzeko eta horren berri emateko.

- Informazio-zerbitzua: 33 kontsultari erantzun zaie.

## 01/7. Mikroenpresei eta enpresa txikiei berrikuntzan eta lehiakortasunean laguntzea.

- 117 enpresa lehiakortasuna hobetzeko programetan.

- 210 enpresari eman zaie arreta informazio- eta kontsulta-zerbitzuan.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



# 02 Formakuntza eta Enplegua

Prestakuntza eta Enplegu Sailaren jarduerek hiru ardatz estrategikotan jarri dute indarra: tokiko sareak indartzea enplegu-, prestakuntza- eta orientazio-ekintzetan laguntzen duten erakunde eta entitateekin, erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzeko prozesuetan dauden pertsonentzako posizionamendu hobea lortzeko ekintza berritzaileak sustatzea, eta pertsonei aholkularitza, orientazioa, babesa eta laguntza ematea gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan.

Bidasoa bizirik enplegu sistema publikoaren parte da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzaile den aldetik, eta, horregatik, gure jarduera guztien helburua da pertsona guztiei lana lortzen laguntzea eta, horrela, lan-merkatu orekatuagoa lortzen laguntzea.

2020aren ezaugarri nagusia COVID-19aren pandemia izan da, eta esku hartzeko gure estrategiak egokitu behar izan ditugu, eredu presentzialetik ez-presentzialera jauzi eginda, ustekabean eta bat-batean lanik gabe geratu diren herritar guztiei kalitatezko zerbitzu praktikoak ematen jarraitu ahal izateko. Laguntza eta babesa eskaini dizkiegu beren oinarrizko beharrak asetzeko aurrena eta, ondoren, lan-egoeraren arazoari heltzeko.

Dena dela, nabarmendu behar dugu metodologiagatik eta elkarlaneko diseinuagatik berritzaileak diren bi proiektu jarri ditugula martxan:

• Lan arloan zaurgarriak diren pertsonen enplegagarritasuna eta laneratzea hobetzeko programa berritzaile bat, HAZI-LAN. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du «Eskualdeko ikuspegiari ekarpena eginez ekonomiaren sustapena bultzatzeko» dirulaguntza-deialdiaren bidez, eta 12 lagunek hartu dute parte, % 75 emakumeak eta % 25 gizonak.

«Soft skill» edo abilezia bigunak direlakoak landu dira, talde-ekintzailetzarako tresnen bitartez, bai eta abilezia profesionalak ere, eskualdeko enpresetako lanetik kanpoko praktiken bitartez Parte-hartzaileen batez besteko adina 45 urtekoa izan da, eta egoera pertsonalak, askotarikoak. Laneratzea % 42koa izan da.

• Eta IRUN EKINTZAN (enpleguan eta prestakuntzan erreferente diren erakundeen eskualdeko sarea) Kualifikazio eta Laneratze Mahaiak diseinatutako elkarlaneko proiektu bat. Proiektu hori BIDA-LAN deitzen da, eta bertan parte hartu dute EMAUS fundazio sozialak eta Mendibil elkarte pedagogikoak. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du «Elkar-EKIN Lanean, enplegua eta gizarteratzearen eta laneratzearen sustapena» programako dirulaguntza-deialdiaren bidez, eta aukera eman digu eskualdean garatzen ari garen maila anitzeko eta elkarlaneko gobernantza-eredu irekia indartzeko eta kolektibo ahulenenen posizionamendua hobetzeko.

## 02/1. Etorkizuna duten lanbideen El Espazio guneko jarduerak

2020an, Etorkizuna duten lanbideen El Espazio gunean **4.111 zerbitzu** eman dira pertsonei enplegua eta prestakuntza lortzeko bidean laguntzeko.

Esku-hartze pertsonalizatuak eta taldeko jarduerak egin ditugu pertsonen arretako gaiak edo interes-poloak erreferentziatzat hartuta: «bila ezazu zeure prestakuntza», «aurki ezazu zeure enplegua», «bidera ezazu zeure etorkizuna» eta «sor ezazu zeure lana».

Aholkularitza pertsonalizatuari dagokionez, 693 laguni eman dizkiegu orientazio-, informazio- eta laguntza-zerbitzuak.

Taldeko jarduerei dagokienez, 43 tailer eman ditugu, eta 438 pertsonak hartu dute parte.

Aurtengoan enplegua bilatzeko tailerretan izan dugu eskaera handiena, aurreko urteetako dinamikaren kontrara. Izan ere, elkarkidetzako tailerrak izan ziren orduan parte-hartze handienekoak. El Espazioren ildo bereizgarrietako bat dira, eta haren bidez komunitateko erakunde eta eragile sozialekin elkarlanean aritzen gara, bai eta prestakuntza-zentroekin ere, baina aurten ez dute hain eskari handia izan, bizi dugun egoera sanitarioa dela eta.

Ildo horretan, maiatzean eta ekainean online eskaini zen «ETXETIKprestatzenNAIZ» tailer-programa nabarmendu behar dugu. 153 lagunek hartu zuten parte.



Asko erabiltzen den bitartekoa da Autoerabilera gela, 9 ordenagailu (indarreko kontingentzia-planean 5era murriztu dira), interneteko konexioa, eskanerra, inprimagailua eta enplegua lortzeko eta hobetzeko hainbat laguntza baliabide dituen gela. Bertan 1.934 zerbitzu egin dira (iaz baino % 57 gutxiago) eta 823 orduz erabili da.

Oro har, El Espazio gunearen jardueretan parte hartu dutenen % 49 gizonak ziren, eta % 51, emakumeak. Adinari dagokionez, berriz, % 45ek 45 urte baino gehiago dituzte, 30 urtetik beherakoak dira % 21 eta % 34, azkenik, 30 eta 45 urte artekoak dira.

## 02/2. Orientazioa eta enplegu-zentroa

2020. urtea ezohikoa izan da bi programa horiei dagokienez ere. Martxo erdialdetik aurrera bertan behera geratu ziren aurrez aurreko arreta-zerbitzuak eta esfortzu handia egin zen, telelanaren bidez, pertsonei laguntza ematen jarraitzeko, hala enplegua bilatzeko nola laguntzak izapidetzeko.



Maiatz erdialdera arte ez genien berriz ekin  aurrez aurreko arretei, eta nahiko mugatuak izan ziren, egoera dela eta. Hortaz, gure lan egiteko moduak aldaketa sakona izan du. Aurretik hitzordua eskatuta baino ez da arreta ematen. Hala eta guztiz ere, Enplegurako Orientazio Zerbitzuak (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutakoa) arreta eman dien pertsona kopurua % 6 handitu da, eta prozesu indibidualizatuak egin ditu 415 pertsonarekin (2019an baino 24 gehiago). Arreta kopuruak % 44ko igoera izan du, 1.256tik 1.810era igo baita. Lana lortu dutenen ehunekoa % 41,5 zen 2020ko abenduan.

Enplegu Zentroa zerbitzuaren exekuzioa (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutakoa) nabarmen murriztu da, hala sarbide kopuruari nola arreta jaso duten pertsonei dagokienez. Bigarren hiruhilekoan zerbitzua itxita egon zen eta ondoren aforoak mugatuta egon ziren. Horrela, sarbideak 651 izan dira, 2019an baino % 42 gutxiago, eta pertsona kopurua 119, % 56 gutxiago.

Edonola ere, erabilera-orduak 765 izan dira eta, beraz, murrizketa % 22koa baino ez da izan aurreko urtearekin alderatuta. Deialdiaren arabera nahitaezkoak diren taldeko jarduerei dagokienez, taldeko 17 tailer egin dira eta horietan 67 pertsonak parte hartu dute.

## 02/3. Prestakuntza

Oro har, 2020an prestakuntzako 27 ekintza jarri dira abian. Horietan 318 lagunek parte hartu dute, % 53,8 gizonak eta % 46,2 emakumeak.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, 17 ikastaro eman ditugu: guztira, 885 orduko prestakuntza teoriko praktikoa eman dugu, eta 190 pertsonak hartu dute parte –% 61 gizonak eta % 39 emakumeak–.



Hauek izan dira prestakuntzako espezialitateak:
- Oinarrizko ostatu-zerbitzuak,
- Jatetxeko eta tabernako oinarrizko lanak,
- Frantsesa,
- Orga jasotzaileak (ziurtagiria),
- Eraikuntzako laneko arriskuen prebentzioa (ziurtagiria) eta espezialitateetako 4 ikastaro: gaitasun digitalak, merkataritzako laguntzailea, bezeroaren arreta eta telemarketina, pintura eta elektrizitatea.

Prestakuntza horiek finantzatzeko honako hauen baliabideak erabili dira: LANBIDE, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Irun Ekintzan.

Etengabeko ikaskuntzaren arloan, onlineko 11 ikastaro kudeatu eta tutorizatu ditugu. Guztira, prestakuntza presentzialaren 4 ordu eta prestakuntza ez-presentzialaren 196 ordu izan dira. 128 pertsonak parte hartu dute; haietatik % 71,1 emakumeak ziren, eta % 28,9, gizonak. Nabarmentzekoa da elikagaien manipulazioko eta alergenoen kudeaketako ikastaroko ziurtagiria lortu dutela 51 pertsonak, hau da, matrikulatutakoen % 64,6k.

Era berean, **aulaNET – Bidasoa activa** onlineko prestakuntza-plataformak autoprestakuntzarako ehun ikastaro baino gehiago egiteko bide eman du. 233 matrikula erregistratu dira 36 ikastarotan.

## 02/4. Laneko bitartekaritza eta praktikak

Jarduera honetan ere COVID-19aren pandemiaren ondorioak gogor sentitu ditugu: kudeatutako eskaintzen kopurua murriztu da eta ezin izan ditugu egin urtean eskualdean antolatzen ditugun bi Enplegu Asteak.

Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako enplegu-agentzia gisa, 2020an 103 lan-eskaintza kudeatu ditugu guztira, 2019an baino % 76,3 gutxiago, eta 170 lanpostukoa izan da eskaria. 6.901 hautagaitza aztertu ditugu enpresentzat.

Gainera, Irun eta Hondarribiko Udalen enplegua sustatzeko programa kudeatu dugu. Horretarako, 38 hautaketa-prozesu egin ditugu 77 pertsona kontratatzeko bi herrietan.

Lanez kanpoko prestakuntza-praktikei dagokienez, 16 hitzarmen kudeatu ditugu eskualdeko enpresekin, gauzatutako prestakuntza-programak amaitu dituzten pertsonen parte-hartzearekin.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



# 03 Ekintzailetza eta Jarduera Berria

Ekintzailetza eta Jarduera Berriaren Sailaren jarduera eskualdean espiritu ekintzailea sustatzean eta ekintzailetzarako potentziala duten pertsonak erakartzean datza, laguntza eta babes integrala eskainita, proiektuaren lehen faseetatik hasi eta enpresa bideragarri bezala sendotu arte.

Helburu hauek ditu, besteak beste: - Enpresa-ekimenak dituzten ekintzaileei laguntza ema-tea, batik bat berritzaileak badira, arrakasta lortzeko aholkularitza integrala eskainita. - Enpresa bideragarrien sorrera sustatzea, batik bat berritzeko edo dibertsifikatzeko asmoa dutenak. - Teknologia berrien erabilera, berrikuntza-estrategia jasangarriak, ekonomia zirkular baterako trantsizioa eta/edo ekintzailetza soziala sustatzea eskualdeko ekintzaileen artean.

Hori guztia, honako hauen bidez:

- Enpresa-proiektuak sortzea eta erakartzea.
- Espiritu ekintzailea txertatzea haurren artean eta ekin-tzailetza-kultura ezartzea eskualdean.
- Prestakuntza jarduerak: jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, ekitaldiak, ekintzaileen eta enpresa berrien arteko topaketak.
- Laguntza, mentoretza eta orientazioa ekintzaileentzat eta enpresa berrietan, aholkularitza emanda (merkatu potentzialak hautemateko, juridikoa, ekonomikoa eta dirulaguntzen alorrekoa, hasierako teknologiari buruz-koa); proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren azterlanak, berrikuntzaren sustapena.
- Networking-eko ekitaldiak eta topaketak antolatzea eta beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako proiektuetan parte hartzea (GARAPEN, BIC, Berrilan, lankidetza-sare nazionalak, etab.).
- Gure lurraldean jarduera ekonomikoak ezartzeko infor-mazioa eta hedapena hobetzea.

Bost laguneko lantalde batek lan egiten du enpresa berriei eta ekintzaileei babes hori helarazteko. Horretarako, zerbi-tzu-eskaintza zabal eta integral bat ematen diegu, ekin-tzailetzaren ziklo osoa barne hartuta, ideia sortzen denetik proiektua enpresa gisa sendotu arte, ahaztu gabe cowor-king espazioaren inkubazio-eskaintza eta Bidasoa bizirik-ek kudeatutako enpresa-zentroak.

2020an, Ekintzailetza eta Jarduera Berriaren Sailaren jardueran eragina izan zuen COVID-19aren pandemiak. Horrela, alarma-egoera indarrean jarri eta ondorengo lehen hilabeteetan jarduera ia guztia enpresa berriei arreta ematera bideratu zen, Ekintzailetzarekin lotutako ekimenek geldialdia izan zuten, eta konfinamendua amaitu ondoren poliki-poliki berriz suspertu ziren. Hain zuzen ere, konfinamendu-garaian, telelana ezarri zenean, dagoeneko martxan zeuden enpresentzako arreta-zerbitzuei dagokienez, 413 enpresak aurkeztutako 1.058 kontsultari erantzun zitzaien pandemiaren lehen hiru hilabeteetan.

Enpresa sortzeko prozesuko lehen faseetara bideratutako zerbitzuei dagokienez (ideia, bideragarritasun-azterketa eta martxan jartzea), nolabaiteko normaltasuna berreskuratu dugu, eta 415 pertsonari eman zaie arreta 2020 amaierarako.

Bestelako jarduerei dagokienez (sormenezko ekintzailetza berritzaile, teknologiko eta jasangarria sustatzera bideratutakoak eta ekintzailetzaren ekosistema indartzera bideratutakoak), COVID-19aren ondoko egoerari moldatzen joan dira, onlineko formatuak edo erdipresentzialak txertatuta, eta aurreikusitako adierazleak bete dituzte.

2020an egin diren jarduketak sailaren ardatz eta lan-ildo nagusien arabera antolatu ziren. Bidasoko Garapen Ekonomikoko 2021eko Plan Estrategikoan daude jasota, eta jarraian laburbildu ditugu.

## 03/1. Jarduera ekonomikorako lurzoruaren eta espazioen eskaintzari buruzko informazioa ematea

Ildo horretan, 2020an erabiltzen ari ez diren espazio gehiago identifikatu dira, jarduera industrialerako. Era berean, Irun on webguneko enpresen ezarpenari buruzko 80 erregistro eguneratu dira.

Lan egiten jarraitu dugu, halaber, lurzoruaren eta espazio erabilgarrien kudeaketarako informazioa bateratzeko eta erakundeen arteko elkarlan koordinatua sustatzeko, balio erantsiko enpresa-jardueren ezarpena errazteko.

## 03/2. Proiektu eta enpresa berrien sendotzea dinamizatzea eta indartzea

Ducourauko coworking-espazio gogor jo zuen COVID19ak: itxita egon zen alarma-egoerak iraun bitartean eta, ondoren, poliki-poliki hasi ziren erabiltzaileak berriz lanean hasten ekainetik aurrera. Urte amaieran, hamabi erabiltzaile zeuzkan.



Enpresa-zentroen okupazio-mailari dagokionez, bertako enpresetako bat itxi egin behar izan dute COVID19aren pandemia dela-eta baina, oro har, eragina txikiagoa izan da eta okupazio-maila altua izan dute instalazio guztiek.

## 03/3. Sormenezko ekintzailetza berritzailea, teknologikoa eta jasangarria sustatzea eraldaketarako eragile gisa

Aukerak aprobetxatzeko jarrera eta sormena uztartzen direnean, ekintzaileentzako eta enpresentzako berrikuntza onuragarriak sortzen dira. Abiapuntu horretatik, ekimen ekintzailea irakatsi nahi diegu guztiei haurtzarotik, zientzian, teknologian eta sormenean oinarrituta, sormenezko jarduera ekintzaile, berritzaile eta teknologikoa indartzeko, balio erantsia, eraldaketa eta modernizazioa dakartzan jarduera sortzaile gisa.

Helburu hori lortzeko bidean, zailtasunez beteriko urtea izan da 2020a, pandemiaren zailtasunengatik baina, batez ere, haurrei zuzendutako teknologia-tailerrak bertan behera utzi behar izan ditugulako. Alabaina, onlineko formatua eta erdipresentziala uztartuz, Ekintzailetzarako beka-programa gauzatu ahal izan dugu. Bertan, 5 ekimen berri garatu dira. Era berean, egin ahal izan ditugu onlineko formatuen bidez, 20 workshop eta topaketa antolatu ditugu, 200 pertsona inguruuren partehartzearekin. Gainera, sormenezko industrien, ekonomia zirkularraren, tokiko produktuaren eta arretaren sektoreetan, laguntza eman diegu ekintzailetzako 10 ekimeni.

## 03/4. Enpresak sortzeko ekimenak dituzten pertsonei laguntza, gaikuntza eta aholkularitza ematea

Ekintzailetza-proiektu bati ekitea erronka handia da, eta lehen urratsak erabakigarriak dira. Horietan, funtsezkoa da ahalik eta babes handiena ematea. Horregatik, gure sailak arreta, informazio, aholkularitza eta babesa emateko etengabeko lan bat egiten du, ekintzailetza-prozesuaren hasiera-hasieratik enpresa sendotu arte, kasuaren arabera.

Ildo horretan, aipatu behar da urtean zehar 390 ekintzaileri eman diegu informazioa, prestakuntza, aholkularitza eta/edo babesa enpresa sortzeko prozesuan, eta 25 pertsonari eman zaiela babesa proiektuaren ideia lantzeko prozesuan.




## 03/5. Ekintzailetza-sistema sendotzea

Ildo horretan, sailaren jarduketa nabarmenetako bat da urtero KREA BIDASOA antolatzea, ekintzailetzaren eta enpresa lehiakorren ekosistemaren erreferentziazko gune bezala, ekintzaile dinamiko eta motibatuek zuzenduta. Bidasoa bizirik-en Lehiakortasun eta Berrikuntza Sailarekin koordinatuta egiten da. Ildo horretan, aipatu behar dugu ekimen hori antolatzeko lanak egin genituela martxoan, baina azkenean bertan behera utzi behar izan genuen COVID19aren pandemia eta konfinamendua direla eta.

Arrazoi bera dela eta, eten egin zen Bidasoaldeko LH zentroetan kultura ekintzailea sustatzeko programa. 2020an, aurreko urteetako bideari jarraitasuna emanez, Zirkularrean ekiten izeneko proiektua gauzatu zen partzialki. Izan ere, martxoan amaiera eman zitzaion eta, ondorioz, bertan behera geratu ziren Krea Bidasoaren Hackatona eta urtero eskualdeko LHko zentroekin batera antolatzen den Ekintzailearen Eguna.



Ekintzaileen irudia indartzeko eta kultura ekintzailea sozializatzeko beste ekimen batzuei dagokienez, esan beharra dago 2020an Ideiak bizirik-en 20 buletin bidali zirela, ekintzailetzari buruzko intereseko informazioarekin. Gutxi gorabehera 1.000 pertsona daude izena emanda buletin horiek jasotzeko.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



# 04 Turismoa

2020. urtea pandemiak baldintzatu du guztiz. Turismoaren sektorea zeharo geldituta egon da hilabetetan zehar, eta gure sailetik ezin izan ditugu lankidetza publiko-pribatuko jarduerak landu. Alabaina, sektorearekin harremanetan egon gara eta aholkularitza, informazioa eta laguntza eman diegu dirulaguntzak izapidetu eta eskatzeko.

Gauzatutako proiektu garrantzitsuenen artean, Hondarribi eta Irungo turismoa dinamizatzeko plana aipatu behar dugu. Emaitza marka-proposamen estrategiko bat izan da, posizionamendua hobetzekoa, bai eta 2020-2025 aldirako jarduketa-plana ere. Horri esker, martxan dauden turismo-produktuak indartuko ditugu edo berriak sortuko ditugu, lehiakortasuna irabazteko.

Ezin izan ditugu Basquetourrekin landu marketin-planean zehaztutako produktuen inguruko lan-ildoak, baina gastronomia eta nautikaren alorreko sustapen-jarduerak indartu ditugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean jarraitu dugu, turismo-mahaietan, elkarrekin prestatutako turismo-plan estrategikoa garatzeko.

Destinos Euskadi elkartearekin aurreikusitako jarduketak ere beste zeregin batzuetara bideratu dira, webgunea eta sare sozialak hobetzera, zehazki.

Bisitari eta bertakoentzako posizionamendu ikusgarri eta zuzenagoa izateko lan egin dugu www.visithondarribiairun.eus webgunearen bidez. Marketin-plan digital bat landu dugu, hemendik aurrerako estrategia bat izateko eta sareetan dugun presentzia hobetzeko.

Irun eta Hondarribiko Udalek turismoa sustatzeko proposatutako proiektuetan parte hartzen jarraitu dugu.
Irunen kasuan, Pirinioetako Burdinaren Ibilbidearen jarduketetan parte hartu dugu, Irugurutzetako meatze-barrutia eta Oiasso bultzatuz.

Irugurutzetako ibilbideko seinaleak berritu dira. Irungo merkataritzaren inguruko argazki-erreportaje bat eta bideo turistiko bat egin dira. Irungo bisita gidatuak dinamizatu dira udan Irunen egiteko planak biltzen dituen eskuorri bat argitaratuta. Atlantikoko Erromatar Hirien Sarerako eskuorri bat argitaratu zen, bertako kide diren hiriak sustatzeko.

Hondarribian, Erdi Aroko Hirien Sarearen eskutik, promozio-ekintzak egiten jarraitu dugu. -«Música “en clave de Red" de Ciudades y Villas Medievales» produktu turistikoaren aurkezpena Fiturren. «Recorriendo el Medievo» eta «Música “en clave de Red" de Ciudades y Villas Medievales» ekimenak sustatzeko eskuorriak argitaratu dira. Sare sozialetan publizitate-kanpaina bat egiteko inbertsioa egin da eta Sarearen webguneko atal bat birdiseinatu da, zure bidaia planifikatzeari buruzkoa.

Kalitate-sistemari dagokionez, betetze-maila altua izan da, hobekuntzak sustatzen jarraitu baitugu. Bisitariaren gogobetetzeari buruzko inkestetan, datua % 97,56koa izan da.

## 04/1. Lankidetza publiko-pribatuko jarduerak. Produktuaren garapena

- Sektoreko enpresei COVID-19aren ondoriozko laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea eta jarraipena egitea.

- Mahai azpisektorialak eta itsas eta gastronomia-produktuaren kluba antolatzea eta koordinatzea.

- Irungo Udalarekin batera, Turismo Industrialaren Ibilbidean, Burdinaren Ibilbidean eta Irun Berdean parte hartzea eta sustatzea eta promozio-euskarriak prestatzea.
Atlantikoko Erromatar Hirien sarea sustatzea.
Irungo ostalaritza-jarduera dinamizatu eta ezagutzera emateko aplikazio bat sortzeko prozesuan parte hartu dugu.

- Erdi Aroko Hirien sarean parte hartzea eta sustatzea Hondarribiko Udalarekin batera.
Itsas sektorearen komunikazio-plana abian jartzea Hondarribia Abian programaren bidez.

## 04/2. Turismo lehiakorra sustatzeko jarduerak

- Kode Etikoa izeneko kalitate-programa (lehen, Jardunbide Egokiak eta TICS), eskualdeko 11 establezimenduren eta Bidasoa bizirik-en Turismo Sailaren parte-hartzearekin, jasangarritasunarekiko eta erantzukizunarekiko konpromisoagatik lanean.

- ISO kalitate-ziurtagiria.

## 04/3. Informatzeko, garatzeko eta sustatzeko jarduerak

Hondarribian eta Irunen udan egiteko zenbait plan idatzi ditugu, hala Basquetourrentzat nola Gipuzkoarentzat eta turismoko webguneetan argitaratu dira.
Gainera, Gipuzkoa Turismo erakundearekin elkarlanean aritu gara Gipuzkoa Passport ekimenean, lurraldeko bisitari kopurua sustatzeko.

-Gastronomia. Ekitaldiekin lotutako jarduera gastronomikoak ezin izan ziren egin, baina jardunaldi bat egin zen turismo-sektore profesionalari Hondarribia Irun Gourmet Experience aurkezteko, bai eta tokiko marketin-kanpaina bat ere, Gourmet Experience-aren inguruan.

-Ekoizleekin eta ostalaritzako establezimenduekin lan egin dugu esperientzia berriak sortzeko. Webguneko atala hobetu da eta hobekuntzak egin dira herri bakoitzarentzako bideo berriak eginez eta editatuz.

- «Gentes del Bidasoa»ren 12 programa editatu dira Iñigo Lavado sukaldariarekin batera Hondarribi eta Irungo jarduera ekonomikoak eta pertsona ekintzaileak sustatzeko gastronomiaren bidez.

Basquetour esperientziak. Esperientzia berriak bidali dira, balora ditzaten.
-Enogastronomia: 7 esperientzia 4 establezimendutan. -Turismo-zerbitzuak: 3 esperientzia 1 establezimendutan. -Zerbitzu nautikoak: 1 esperientzia

Turismo familiarra. Turismo familiarreko parte-hartzaile kopurua: 7.

Naturako turismoa. Iragarki bat jarri dugu Bide Berdeen Gidan. Irunen, Irugurutzetako aplikazioa eguneratu dugu bai eta bideko seinaleak ere, kaltetuak baitzeuden.



- Azokak eta sustapenak.Guztira, 3 azokatan izan gara: Fitur, Navartur eta Bioterra.

-Madrilgo Hotel Escuelaren aste gastronomikoan lagundu dugu aurten, bi sukaldarirekin eta Bidasoaldeko gastronomia ezagutzera emateko promozio-materialarekin.

- Sustapena hainbat komunikabidetan, esate baterako Sud Ouest, Frantziako merkatuan eraginez, Gipuzkoa Kostako eta Guide du Pays Basque-ko helmugekin batera interneten.

- Turismo-informazioko euskarriak. Euskarri berriak editatu dira: eskualdeko 51.000 eskuorri, 60.000 plano, turismo-ostatuen 11.000 gida, jateko lekuei buruzko 50.000 gida, 5.000 zerbitzu nautiko, CD Bidasoaren 25. urteurrenaren 200 poltsa...




- Iruni buruzko turismo-bideo bat egin da.

- Turismo nautikoa. Hondarribia Abian ekimeneko sektore nautikoa dinamizatzeko planaren barruan, udako jardueren eskuorri bat argitaratu da turismo-bulegoetan banatzeko eta Hondarribiko 8.500 etxebizitzetako postontzian uzteko, sare sozialetako publizitate geolokalizatuko eta aktibazioko kanpaina indartu da eta sustapena egin da komunikabide orokor digitaletan. Jarduera nautikoen argazki profesionalak egin dira, halaber. Sustapena hobetzeko, bideo profesionalak egin dira.

- Bisitarientzako eta turistentzako arreta. Bulegoak itxita egon dira martxotik ekainera bitartean. Aldi bateko turismo-informazioko Portua auzoko bulegoa abenduan ireki da.

- Idazkaritza Teknikoa garen aldetik, Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sarean parte hartzen duten gainerako udalerriekin koordinatu ditugu ekintzak.

- Idazkaritza Teknikoa garen aldetik, Atlantikoko Erromatar Hirien Sarean parte hartzen duten gainerako udalerriekin koordinatu ditugu ekintzak.

- Gipuzkoako Kostaldea, Euskadiko Kostaldea eta Destinos Euskadi marketan parte hartu dugu.
Destinos Euskadi. Webgunearen gaia indartu da, euskarazko webgunea sortu da eta ekintzak egin dira sare sozialetan.

- Itourbask Turismo Bulegoen euskal sarea berritzea urte osoan zabalik dauden 2 bulegoetan eta Portua auzoko behin-behineko informazio gunea.

## 04/4. Sareak

- Hendaiarekin baterako proiektuak bultzatu ditugu Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez.

- Idazkaritza teknikoaren lana egin dugu eta Erdi Aroko Hirien Sarea koordinatu dugu.

- Idazkaritza teknikoaren lana egin dugu eta Atlantikoko Erromatar Hirien Sarea koordinatu dugu.

- Destinos Euskadi Destino Euskadi elkartea sustatzeko ekintzak bultzatzea.

- Europako proiektuetan parte hartu dugu Bidasoa bizirikeko beste sail batzuekin batera.

## 04/5. Turismo informazio zerbitzua

Bidasoko eskualdeak bi gune dauzka turismo informaziorako Hondarribian eta bat Irunen.

**Turismo bulegoetan izandako bisitak: 41.713**

**Fans facebooken: 14.050**

**Bizitariak, www.bidasoaturismo.com 21.256**

**Kontsulta motak bertan egindakoak**




Bisitariak, nagusiki, Kataluniatik, Madrildik, Valentziako Erkidegotik eta Gaztela eta Leondik etorri dira eta, atzerritarrei dagokienez, Frantziatik. Kontsultak udako hilabeteetan pilatzen dira, nagusiki.
Okupazioei dagokienez, udan izan ezik, pandemiaren ondoriozko mugen eta establezimenduen itxieren ondoriozkoak dira.

**Okupazioaren batezbestekoaren bilakaera hilabeteka.**



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



# 05 Behatokia, Europako Lankidetza eta Partzuergoa

2020an krisi sanitarioak baldintzatuta egon gara, eta lan-plana aldatu behar izan dugu, inguruabar berrien arabera.

Bidasoko behatokiaren eta Bidasoa bizirik-en webgu-nearen bidez, pandemiaren bilakaerari eta inpaktuari buruzko datu-bilketa areagotu da, bai eta gure lurraldean izan dituen ondorioei buruzkoa ere. Era berean, enpresa eta herritarrentzako intereseko informazioa etengabe eguneratu da.

Irun, Hondarribia eta Hendaia arteko mugaz gaindiko jarduera eta ekimenen sustapenari dagokionez, Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko partzuergoak egokitzapenak egin behar izan ditu kirol- eta kultura-jardueren programan, eta hasiera batean aurreikusitako ekimen batzuk birformulatu.

Etorkizunari begira, 2021etik aurrera abian jarriko diren Europar Batasuneko finantzaketa-ildoak ikertzen jarraitu dugu. Horiei esker, azken urteetako lanari jarraipena eman ahal izango diogu eta proiektu berriak abiaraziko ditugu gure eskualdeko estrategiaren arabera eta aurre-rabide berde, digital eta sozial baten aldeko Europako agendaren arabera.

## 05/1. Bidasoko Hiri Behatokia

https://observatorio.bidasoa-activa.com/es/

Bidasoko Hiri Behatokiak gure analisi sozioekonomikorako funtsezko tresna izaten jarraitzen du. Adierazle esanguratsuenak eskuratzen laguntzen digu, eta Irun eta Hondarribiari buruzko informazio-iturri garrantzitsua da.

Behatokian hilabeteko buletinak idazten jarraitzen dute, bai eta txostenak ere, etorkizuneko agertokiak diseinatzeko.




## 05/2. Mugaz gaindiko lurralde-lankidetzako proiektuak

2020an amaitu dira **CONNECT INNOVATION BAI!** eta **EDERBIDEA** proiektuak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) mugaz gaindiko lankidetza-programak kofinantzatutakoak.

Proiektuaren azken urtean, **CONNECT INNOVATION BAI!** proiektuari esker, enpresa-berrikuntzako ekintzak osatu dira nekazaritzan, turismoan, sormen-industrian eta industria nautikoan batik bat, eta laguntza eman zaie ekintzaileei beren sormenezko eta berrikuntzako proiektuak gauzatzeko. Proiektua otsailaren 6an amaitu zen, bazkideen eta enpresa onuradunetako batzuen arteko topaketa batekin, iritziak eta ondorioak azaltzeko eta partekatzeko, eta esperientzia oso positiboa izan dela adierazi dute.

Informazio guztia hemen dago eskuragarri:
**http://www.bidasoa-sudpaysbasque.com**



**EDERBIDEA** proiektua 2020an amaitu zen, Irungo Udalak orduan amaitu baitzuen Azken Portu eta Behobia arteko bidegorria eta pasealekua, Bidasoa ibaiaren ondoan. Horrela, Irungo bidegorrien sarea osatu zen eta ekarpena egin zitzaien garapen jasangarriko estrategiei eta mugaz gaindiko mugikortasunari, bizikletaren erabilera sustatu baitzen eta ibilbideak gaitu baitziren.



**EDERBIDEA: http://ederbidea.com/**

**SMARTMOB** proiektuaren xedea da mugaz gaindiko mugikortasun jasangarria sustatzen jarraitzea, Irunbusen L1 autobus elektrikoaren linea sustatuta; oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak eta garraio komunaren (busa, barkua, trena...) geltokiak biltzen dituen mapa bat argitaratuta eta 2021erako horren bertsio digitala prestatuta.
Irungo Udalak eta Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko partzuergoak hartzen dute parte proiektuan, bai eta Hondarribiko Udalak ere, kide elkartu gisa.

Mugikortasun mapa hemen dago eskuragarri:
**https://www.irunhondarribiahendaye.com/es/**
(Informazio praktikoa – Mugikortasuna)

# 05/3. Partzuergoa

## 05/3.1. Kirolaren sustapena

Urtero bezala, Bidasoa Txingudi eskualdean antolatzen diren mugaz gaindiko kirol-ekitaldi garrantzitsuenak babestu nahi izan ditu Partzuergoak: Txingudi Korrika, Bidasoko Itzulia eta Bidasoa Ibaiaren nazioarteko jaitsiera Hegalekin. Tamalez, pandemia dela eta bertan behera geratu ziren jarduera guztiak, baita Partzuergoak berak maiatzean urtero antolatzen duen Eskola Kirolaren Jaia ere.

Bestalde kirola sustatzeko ildoaren esparruan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin (hitzarmen bidez sinatua), aurten zenbait kirol-diziplinaren federazioen araudien inguruko arazo juridikoa landu da, Europako araudiarekin eta herritarren eskubideekin talka egiteari dagokionez. Ildo horretan, partzuergoak azterlan juridiko bat agindu du, mugaz gaindiko kirol-jardunarekin lotutako zenbait kasuistika aztertu eta sozializatzeko eta egoera horiei konponbidea eman diezaiekeen tresna bat eskaintzeko.

## 05/3.2 Turismoaren sustapena

2020an, Partzuergoko Turismo Batzordeak bi ildo landu ditu nagusiki.

Lehena, promozio-bideo bat egitea eta batik bat sare sozialetan zabaltzea, partzuergoa osatzen duten hiru hirien (Irun, Hondarribia eta Hendaia) puntu erakargarri nagusiak erakusteko irudi dinamikoekin, enfasia jarrita batzen gaituzten elementuetan, hala nola ibaian, badian, ondarean eta kulturan.

Landu den beste ildoa sektorearentzako komunikazioa izan da. Horretarako, informazio-buletin edo newsletter batean bildu dira eskualdetik pasatzen diren bezeroei eskain dakizkiekeen ibilbideak, hiru hirietako interes-puntuak bisitatu ditzaten.

Informazioa eskuragarri dago Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko partzuergoaren webgunean: www.irunhondarribiahendaye.com.

## 05/3.3. Mugikortasuna eta ingurumena

Europako POCTEFA funtsak jasotzen dituen mugikortasun adimenduneko SMARTMOB proiektuaren batzorde teknikoarekin eta, batik bat, Syndicat des Mobilités de la Communauté d’Agglomération du Pays Basque erakundearekin elkarlanean, Bidasoa-Txingudiko mugikortasun-mapa berrargitaratu da, gure mugaz gaindiko eskualdearen turismo-bulegoetan eta ostatuetan banatzeko.




## 05/3.4. Kultura eta euskara

Eskualdeko kultur agendak hiru hirietako kultur jarduera nagusiak jasotzen ditu, eta Bidasoko mugaz gaindiko Partzuergoaren aisia eta turismoaren atalean jasota dago (www.irunhondarribiahendaye.com). Smartphone-entzako bertsioa ere badago (www.bidasoa.mobi).

Euskara sustatzeko neurrien artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: hiru udalerrietako berriak zabaltzeko euskara erabiltzen duten komunikabideentzako urteroko dirulaguntzak eta gure lurraldean bertsolaritzaren eremuan erreferente den Bertso Eskolak antolatutako ikastaro eta tailerrak.

Azkenik, aipatu behar da bertan behera utzi behar izan genituela BidasoaFolk-en 20. edizioa eta kirol-ekitaldiak, pandemiaren aurkako neurrien ondorioz.

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



## IRUNGO UDALAREN EKONOMIA ETA GIZARTEA SUSPERTZEKO PLANA




## HONDARRIBIKO UDALAREN EKONOMIA ETA GIZARTEA SUSPERTZEKO PLANA




---

Joan den martxoaren 14an COVID-19aren ondoriozko osasun krisialdia kudeatzeko alarma egoera deklaratu izana arazo larriak sortzen ari da gure gizartean, aurrekaririk gabeak, mugikortasunari eta ekoizpen jarduerari ezarritako murrizketen ondorioak direla eta.

Testuinguru honetan, ekonomiaren esparruan, Irungo Udala, Hondarribiko Udala eta Bidasoa bizirik bizi dugun egoera aztertzen ari dira, sortzen ari diren behar berriei erantzuteko.

Horretarako, hainbat lan egin dituzte:

- Enpresa sarearekin etengabeko harremanetan egotea, zer-nolako egoeran dagoen jakiteko, eta informazio hori Irungo Udalari, Hondarribiko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraztea

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzea, enpresei administrazio publikoen laguntzak tramitatzeko informazioa eta laguntza emateko martxan jarritako plataformaren esparruan

- Enpresa sareari arreta emateko zerbitzu bat martxan jartzea, administrazioen laguntzei eta berauek eskatzeko pro-zedurei buruzko informazioa emateko

- Bidasoa bizirik-en enpresa zentroetako lokalen alokairuaren ordainketa etetea

- Irungo eta Hondarribiko talka planak (hurrenez hurren, Irun Aurrera eta Itxeki) diseinatzeko eta martxan jartzeko laguntza teknikoa ematea

- Administrazioak COVID-19a dela-eta kaleratutako laguntzei, dirulaguntzei eta informazioari buruzko informazioa prestatzea eta tratatzea, gure webgunearen eta posta elektronikoaren bidez ezagutarazteko

- Lan merkatuari eta enpresa sareari buruzko txostenak egitea

- Ostalaritza sustatzeko aplikazioa sortzea

- Maker mugimendua koordinatzea, Irun Faktory-ko hiru dimentsioko inprimagailuak erabiliz 1.500 pantaila babesgarri ekoizteko eta banatzeko

- Merkataritzako webinarrak martxan jartzea, establezimenduak irekitzeko prestatzeko

# 2021-2027 ALDIRAKO EUROPAKO PROGRAMA BERRIAK ETA NEXT GENERATION FUNTSAK

2020tik, 2021-2027 aldirako Europako programen programazio aldi berrirako eta NEXT GENERATION funtsetarako prestatzen ari da eskualdea.

COVID-19ak eragindako krisialdiaren ondorio sanitario eta ekonomikoei aurre egiteko, EBk talka neurriak hartu ditu, epe motzean ekonomiari bultzada berria emateko eta epe ertain eta luzean produktibitatea eta hazteko ahalmena ho-betzeko.

Hitzartutako tresna Next Generation EU suspertze funtsa da, 750.000 milioi eurokoa. Suspertze Funtsaren muina Sus-pertze eta Erresilientziarako Mekanismoa da, 672.500 milioi eurokoa, eta lau helburu nagusi ditu:

- COVID-19ak eragindako krisialdiaren ondorio sozial eta ekonomikoak arintzea
- EBko kide diren estatuen erresilientzia eta doitze gaitasuna areagotzea
- EBren kohesio ekonomiko eta soziala eta lurralde kohesioa sustatzea
- Trantsizio ekologiko eta digitalean laguntzea

Helburu horien ildotik eta España Puede Suspertze eta Erresilientzia Planak finkatzen dituen lehentasunen ildotik –haren bidez, 72.000 milioi euro exekutatuko dira 2021-2023 aldian–, eskualdeko eragile nagusiek proiektuen atariko zerrenda bat prestatu dute, Irun Ekintzan-en Kontseilu Nagusiak 2020ko urriaren 21ean egindako bileran aurkeztu dena eta honako hauek hartzen dituena barnean:

- Berrikuntza eta hiri berrikuntza, VíaIrun proiektu estrategikoaren esparruan
- Transformazio digital eta ekologikoa
- Etxebizitza eta auzoen birgaikuntza
- Eraikin publiko eta pribatuen efizientzia energetikoa
- Mugikortasun jasangarri eta adimenduna
- Ekonomia zirkularra
- Merkataritzaren modernizazioa – Digitalizazioa eta jasangarritasuna
- Sormenaren eta kulturaren sustapena, artista eta herritarren arteko elkarlanean

2021etik aurrera aurreikusten diren deialdietara aurkezten joango dira proposamen horiek, baita 2021-2027 aldian kaleratuko diren Europako programa berrietara.

España Puede Suspertze eta Erresilientzia Plana onartzeko eta martxan jartzeko aurreikusten den egutegia:




Iturria:
SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANA. Galde-erantzunak.
https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2020/07102020_PreguntasRespuestasPR.pdf



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

## 2020 Bidasoa bizirik Kopurutan

### Ekintzailetza

**816**
Pertsonari eman zaie arreta

**80**
Burututako bideragarritasun planak

**447**
Pertsonak prestatu dira ekintzailetza prozesuetan

**594**
Lanbide Heziketa zentroetako pertsonek parte hartu dute ekintzailetza ekintzetan

### Enpresa

**117**
Lehiakortasuna eta transformazio digitala hobetzen ari diren enpresak

**210**
Enpresari arreta eman zaie informazio eta kontsulta zerbitzuetan

### Gaitasun profesionala eta enplegua

**1.864**
Pertsonari arreta eman zaie etorkizuna duten lanbideen El Espazioan

**693**
Pertsona aritu dira orientzaioan, enplegu bilaketan eta diseinu profesionalean

**103**
Lan-eskaintza

### Prestakuntza

**190**
Pertsona prestatzen ari dira, aurrez-aurreko

**28**
Prestakuntza-ekintza

### Turismoa

**41.713**
Turismo bulegoetan izandako bisitak

**1.011**
Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak

**21.256**
Aurrez aurreko egindako kontsultak



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Behe bidasoa eskualdeak guztira 80.258 biztanle zituen 2019an, eta horrenbestez, km2—ko 1.120,9 biztanleko dentsitatera iritsi da dagoeneko.

LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 37.114 lagunek osatzen dute Bidasoa eskualdeko biztanleria aktiboa, 2019an. LANBIDEn izena emaniko langabetuen kopuruari dagokionean, abenduaren 31an 4.374 langabetu dira guztira, eta horrek esan nahi du %11,8 ingurukoa dela langabezia tasa biztanleria aktiboaren gainetik. Era berean formalizaturiko kontratuak 19.167 dira guztira. Aipatzekoa da, Gipuzkoan guztira eginiko kontratuei dagokionean %9,2ekoa dela eskualdeko kontratuen partaidetza, aurreko urtekoa baino antzekoa izanik ehuneko hori.

Gizarte segurantzarako afiliazioak 23.904 pertsona dira, 18.917 Irungo udalerrian eta 4.987 Hondarribiko udalerrian.

Eskualdeko hezkuntza zentroetako ikasleak 12.451 ziren. Matrikulazioen %66 ikastetxe publikoetan egin da eta gainerako %34 zentro pribatuetan. Bidasoako kanpusean (Mondragon Unibertsitatea) 302 ikasle ari dira guztira, bai eskualdekoak bai beste udalerri batzuetakoak.

Eskualdeko enpresa ehuna, berriz, 6.355 establezimenduk osatzen dute 2020an; horietan 27.186 langile ari dira, eta horietatik %77% hirugarren sektorean ari dira lanean.

Lehen sektoreari dagokionean, aipatzekoa da, Hondarribiko ontzidiak aurrera eramaniko arrantza jarduera bikaina, 26 ontzi eta 302 marinelekin, kontuan izanik soilik baxurako azpisektoreanjarduten dutela. Kanpainan 6.897 tona arrain atzeman zituzten.

Eskualdeko industri sektorea 377 establezimenduk osatua dago eta 4.091 lagun ari dira horietan lanean. 3.949 Irunen eta 142 Hondarribian.

Eraikuntzari dagokionean, eskualdean 912 establezimendu daude eta 1.500 langile ari dira horretan lanean.

Eskualdeko hirugarren sektorea (zerbitzuak) 4.954 establezimenduk osatzen dute guztira, eta 21.102 lagun ari dira horretan lanean.

Sektore horren barnean aipatzekoak dira:

## Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak 943 ziren guztira, horietatik %84 Irunen daude. Eskualdeko merkataritza dentsitatea 11,75 establezimendu da 1.000 biztanleko.

## Turismoa

2020. urtean 43 ostatu establezimendu zeuden eskualdean. Establezimendu horiek 2.533 plaza eskaintzen dituzte guztira. Urte berean zehar, 1,2 egun izan dira bisitariek batez beste eman dituzten gauak.

Eskualdeko hotel okupazioak %39ko okupazioa izan zuen urtean batez beste.

## Garraioa eta Logistika

Eskualdean 310 dira errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak, horietatik %65ek ibilgailu astunak erabiltzen ditu eta gainerako % 35ek ibilgailu arinak.

# 08/
# Demografia eta gizartea

## 08/1. Demografia

**Behe Bidasoako biztanleria, biztanleriaren %-ekoa** **2020**




Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Bizt. Kop.** | **%** | **Bizt. Kop.** | **%** | **Bizt. Kop.** | **%** |
| **Sexua** | | | | | | |
| · Gizonak | 31.025 | 49 | 8.459 | 49,9 | 39.484 | 49,2 |
| · Emakumeak | 32.271 | 51 | 8.503 | 50,1 | 40.774 | 50,8 |
| **Guztira** | **63.296** | 100 | **16.962** | 100 | **80.258** | 100,0 |
| **Adina** | | | | | | |
| · 0-14 | 8.357 | 13,2 | 2.251 | 13,3 | 10.608 | 13,2 |
| · 15-29 | 9.403 | 14,9 | 2.547 | 15,0 | 11.950 | 14,9 |
| · 30-44 | 12.241 | 19,0 | 2.916 | 17,2 | 15.157 | 18,9 |
| · 45-59 | 15.149 | 23,9 | 4.070 | 24,0 | 19.219 | 23,9 |
| · 60-74 | 11.144 | 17,6 | 3.276 | 19,3 | 14.420 | 18,0 |
| · 75-89 | 6.086 | 9,6 | 1.704 | 10,0 | 7.790 | 9,7 |
| · 90 eta gehiago | 916 | 1,4 | 198 | 1,2 | 1.114 | 1,4 |
| **Guztira** | **63.296** | 100 | **16.962** | 100 | **80.258** | 100 |

Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

**Biztanleriaren bilakaera** (2010 urtea: basea 100) **2010-2020**




Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala, INE eta Eustat

**Azalera eta biztanleriaren dentsitatea Behe Bidasoan** **2020**

| | Azalera ($km^2$) | Biztanleria | Dentsitatea (bizt./$km^2$) |
|---|---|---|---|
| **Behe Bidasoa** | **71,6** | **80.258** | **1.120,9** |
| Irun | 42,8 | 63.296 | 1.478,9 |
| Hondarribia | 28,8 | 16.962 | 588,9 |
| **Gipuzkoa** | **1.980,3** | **727.121** | **367,2** |

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

# 08/02. Prestakuntza

**Matrikulazioak univertsitatez kanpoko prestakuntza arautuko zentroetan** **20/21 ikastaroa**

| | Irun | | | Hondarribia | | | Behe Bidasoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** |
| Haur/lehen/bigarren hezkuntza (1) | 4.775 | 2.760 | 7.535 | 1.307 | 956 | 2.263 | 6.082 | 3.716 | 9.798 |
| BATXILERGOA | 689 | 265 | 954 | 124 | 122 | 246 | 813 | 387 | 1.200 |
| E.M.H.Z. (2) | 429 | 102 | 531 | - | - | - | 429 | 102 | 531 |
| G.M.H.Z. (3) | 724 | 111 | 835 | - | - | - | 724 | 111 | 835 |
| Beste batzuk | -- | 87 | 87 | - | - | - | 0 | 87 | 87 |
| **Total** | **6.617** | **3.325** | **9.942** | **1.555** | **1.078** | **2.509** | **8.172** | **4.403** | **12.451** |

(1) Haurtzaindegiak eta 2 urtekoen gelak barne daude; (2) Erdi mailako prestakuntza zikloak; (3) Goi mailako prestakuntza zikloak.
Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala,

**Behe Bidasoako ikasleen matrikulazioak unibertsitateetan** **20/21 ikasturtea**

| | matrikulaturiko ikasle kop |
|---|---|
| **Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)** | **1.024** |
| Gipuzkoako Kanpusa | 717 |
| Bizkaiako Kanpusa | 156 |
| Arabako Kanpusa | 151 |
| **Deustuko Unibertsitatea (Donostiako Kanpusa)** | **161** |
| **Nafarroako Unibertsitatea (TECNUM, Donostiako Kanpusa)** | **53** |
| **Mondragon Unibertsitatea** | **88** |

Iturria: UPV/EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Deustoko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea

**Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako Kanpusa** **20/21 ikasturtea**

| | matrikulaturiko ikasle kop. |
|---|---|
| Gradua Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan | 178 |
| Ekintzaileltza eta Berrikuntza Lidergo gradua | 124 |
| **Guztira** | **302** |

Iturria: Mondragon Unibertsitatea

# 09/
# Lan merkatua

## 09/1. Enplegua

| Biztanleria aktiboa Behe Bidasoan | 2020 |
|---|---|
| Irun | 29.056 |
| Hondarribia | 8.058 |
| **Behe Bidasoa** | **37.114** |
| Gipuzkoa | 350.396 |
| EAE | 1.076.238 |

Iturria: Lanbide

## 09/2. Kontratazioa

### Behe Bidasoa eta Gipuzkoan formalizatutako kontratuak

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Behe Bidasoa | 23.588 | 25.835 | 27.498 | 26.655 | 19.167 |
| Gipuzkoa | 268.547 | 280.696 | 291.885 | 293.781 | 207.769 |
| **% Eskualde/Gipuzkoa** | **8,8** | **9,2** | **9,4** | **9,1** | **9,2** |

Iturria: Lanbide

| Behe Bidasoan kontrataturiko pertsonen profila | 2020 |
|---|---|
| Sexua | Gizona (53%) |
| Adina | 25 urtetik 44 urtera (55%) |
| Kontratuaren iraupena | Zehaztutako iraupena (89%) |
| Kontratuaren lege sailkapena | Behin-behineko zirkunstantziala (63%) |
| Ekonomi sektorea | Zerbitzuak (81%) |

Iturria: Lanbide

## 09/3. Gizarte segurantzarako afiliazioak

### Afiliazioak Behe Bidasoan, motaren arabera

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Erregimen orokorra | 15.804 | 16.506 | 16.841 | 17.424 | 16.863 |
| Autonomoak | 6.287 | 6.162 | 6.148 | 6.007 | 6.021 |
| Erregimena (Nekazaritzakoa, Itsasoa eta Etxeko enpleg.) | 1.048 | 1.049 | 1.018 | 1.017 | 1.020 |
| **Guztira** | **23.139** | **23.717** | **24.007** | **24.448** | **23.904** |

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

# 09/4. Langabezia

## Lanbiden erregistraturik dauden langabezian dauden pertsonak

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Behe Bidasoa** | **4.701** | **4.275** | **4.029** | **3.981** | **4.374** |
| Irun | 3.999 | 3.622 | 3.431 | 3.391 | 3.744 |
| Hondarribia | 702 | 653 | 598 | 590 | 630 |

Iturria: Lanbide

## Langabezia tasa Behe Bidasoa, Gipuzkoa eta EAEan 2010-2020




## Langabezia tasa 2020

| | |
|---|---|
| EAE | 12,0% |
| Gipuzkoa | 9,8% |
| **Behe Bidasoa** | **11,8%** |
| Irun | 12,9% |
| Hondarribia | 7,8% |

Iturria: Lanbide, 2019ko biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta

## Langabezian dauden pertsonen profila Behe Bidasoan 2020

| | |
|---|---|
| Sexua | Emakumezkoa (57%) |
| Adina | 44 urte baino gehiago (50%) |
| Ikasketa maila | Bigarren hezkuntza (46%) |
| Jarduera sektorea | Zerbitzuak (73%) |
| Multzo profesionala | Zaharberritze-zerbitzuko langileak, saltzaileak, etab (32%) |

Iturria: Lanbide

# 10/
# Enpresa ehuna

## 10/1. Establezimenduak eta enplegua 2020

**Establezimenduak jarduera motaren arabera: 6.355**

Nekazaritza, arrantza eta abeltzainntza: %1,8 | Industria: %5,9 | Eraikuntza: %14,4 | Zerbitzuak: %77,9

**Enplegua jarduera motaren arabera: 27.186**

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: %1,8 | Industria: %15,1 | Eraikuntza: %5,5 | Zerbitzuak: %77,6

Iturria: Eustat

## 10/2. P.I.B.

**Barne-produktu gordina BPG, per capita, (prezio arruntak €)** **2018***

| | per capita BPG (€) | Indizea (EAE=100) |
|---|---|---|
| Irun | 31.331 | 89 |
| Hondarribia | 28.232 | 80 |
| Behe Bidasoa | 30.644 | 87 |
| Gipuzkoa | 35.915 | 102 |
| EAE | 35.201 | 100 |

Iturria: Eustat *azkeneko datua

# 11/
# Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

## 11/1. Nekazaritza

| Usategiak Behe Bidasoan: kopurua eta tamaina | 2020 |
| --- | --- |
| Usategi kopurua | 547 |
| Batez besteko tamaina (Hak) | 2,18 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

**Azalera osoa Behe Bidasoan, motaren arabera** **2020**




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

## 11/3. Abeltzaintza

| Abelburuak Behe Bidasoan: kopurua eta mota | 2020 |
| --- | --- |
| Abelburuak, kopurua | 5.375 |
| Abelburuak, abereen arabera | Ardiak (55%), behiak (32%) |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

## 11/2. Arrantza

| Arrantza jarduera | 2020 |
| --- | --- |
| **Ontziak** | |
| Artisau erara | 9 |
| Azalera | 17 |
| Guztira | 26 |
| **Marinelak** | |
| Artisau erara | 40 |
| Azalera | 262 |
| Guztira | 302 |
| **Atzemandakoak** | |
| Bolumena (kilotan) | 6.897.494 |
| Arrain motak | hegaluzea (40%), antxoa (5%), berdela (34%), sardina (9%) |

Iturria: Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

# 12/ Industria

**Industri establezimenduak eta enplegua, jarduera motaren arabera** **2020**

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua |
| ·Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 35 | 544 | 8 | 55 | 43 | 599 |
| ·Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak | 23 | 106 | 8 | 9 | 31 | 115 |
| ·Egurra eta artelazkia | 11 | 43 | 1 | 1 | 12 | 44 |
| ·Papera | 3 | 48 | - | - | 3 | 48 |
| ·Arte grafikoak eta euskarri grabatuen kopia | 23 | 53 | 4 | 5 | 27 | 58 |
| ·Industria kimikoa | 3 | 31 | - | - | 3 | 31 |
| ·Kautxua eta plastikoak | 22 | 428 | 1 | 1 | 23 | 429 |
| ·Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk | 6 | 30 | 1 | 1 | 7 | 31 |
| ·Burdin produktuak, altzairua… | 1 | 2 | - | - | 1 | 2 |
| ·Produktu mineralak, makineria eta ekipamendua | 82 | 1.141 | 2 | 2 | 84 | 1.143 |
| ·Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak | 14 | 251 | - | - | 14 | 251 |
| ·Material eta ekipamendu elektrikoa | 4 | 53 | - | - | 4 | 53 |
| ·Beste ataletan ez dagoen makineria eta | 18 | 220 | 2 | 4 | 20 | 224 |
| ·Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdiatoiak | 4 | 355 | - | - | 4 | 355 |
| ·Garraio-materiala | 2 | 326 | 1 | 7 | 3 | 333 |
| ·Altzariak eta manufakturako beste industria batzuk | 32 | 109 | 3 | 4 | 35 | 113 |
| ·Makineria eta ekipamenduaren konponketa eta | 23 | 82 | 21 | 39 | 44 | 121 |
| ·Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotuaren | 2 | 7 | 2 | 4 | 4 | 11 |
| ·Ura hartu, araztu eta banatzea | 3 | 67 | 1 | 15 | 4 | 82 |
| ·Ur zikinak biltzea eta tratatzea | 10 | 47 | 1 | 1 | 11 | 48 |
| **Industri Guztira** | **321** | **3.949** | **56** | **142** | **377** | **4.091** |

Iturria: Eustat

**Establezimenduak**




**Enplegua**




Iturria: Eustat

# 13/ Eraikuntza

**Establezimenduak eta enplegua eraikuntza sektorean** **2020**

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua |
| **Eraikuntza Guztira** | 773 | 1.285 | 139 | 215 | 912 | 1.500 |

Iturria: Eustat




Iturria: Eustat

# 14/ Merkataritza

## Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan, jarduera motaren arabera 2020

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 301 | 60 | 361 |
| Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak | 165 | 33 | 198 |
| Farmazia, drogeria, lurrin-dendak | 40 | 7 | 47 |
| Etxeko ekipamendua | 64 | 11 | 75 |
| Liburuak, egunkariak, paper-dendak | 29 | 5 | 34 |
| Txikizkako beste dendak | 150 | 27 | 177 |
| Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo* | 44 | 7 | 51 |
| **Txikizkako Merkataritza Guztira** | **793** | **150** | **943** |

Iturria: Eustat

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

## Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan




Iturria: Eustat

## Merkataritza dentsitatea, jarduera mota nagusien arabera, (establez. 1.000 bizt.) 2020

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Elikagaiak | 4,76 | 3,54 | 4,50 |
| Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak | 2,61 | 1,95 | 2,47 |
| Farmazia, droguería, lurrin-dendak | 0,63 | 0,41 | 0,59 |
| Etxeko ekipamendua | 1,01 | 0,65 | 0,93 |
| Liburuak, egunkariak eta papertegia | 0,46 | 0,29 | 0,42 |
| Txikizkako beste dendak | 2,37 | 1,59 | 2,21 |
| Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo* | 0,70 | 0,41 | 0,64 |
| **Guztira** | **12,53** | **8,84** | **11,75** |

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

# 15/ Turismoa

## Behe Bidasoan eskaintzen diren establezimenduak eta ostatu plazak — 2020

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Leku kop. | Establez. | Leku kop. | Establez. | Leku kop. |
| · Hotelak | 6 | 622 | 10 | 406 | 16 | 1.028 |
| · Pentsioak | 7 | 192 | 2 | 19 | 9 | 211 |
| · Nekazal etxeak | 2 | 18 | 6 | 63 | 8 | 81 |
| · Landa etxeak | 2 | 25 | 6 | 67 | 8 | 92 |
| · Apartamentuak | - | - | 2 | 114 | 2 | 114 |
| · Kanpinak | - | - | 2 | 790 | 2 | 790 |
| · Aterpetxeak | 1 | 60 | 1 | 152 | 2 | 212 |
| **Ostatu guztira** | **18** | **917** | **29** | **1.611** | **47** | **2.528** |

Iturria: Bidasoa Turismo

## Behe Bidasoan eskaintzen diren ostatu plazak — 2019




Iturria: Bidasoa Turismo

## Batez besteko okupazioa eta batez beste emandako datuak Behe Bidasoako hoteletan — 2020

| | batezbestekoa / maximoa |
|---|---|
| Okupazio maila hoteletan % | 39% / 80% (abuztua) |
| Emandako gauak (egun kop.) | 1,24 egun |

Iturria: Bidasoa Turismo

## Ostalaritza establezimenduak Behe Bidasoan — 2020

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| · Tabernak | 153 | 49,0 | 28 | 28,0 | 181 | 43,9 |
| · Jatetxeak | 147 | 47,1 | 70 | 70,0 | 217 | 52,7 |
| · Beste batzuk | 12 | 3,8 | 2 | 2,0 | 14 | 3,4 |
| **Ostalaritza Guztira** | **312** | **100,0** | **100** | **100,0** | **412** | **100,0** |

Iturria: Eustat

# 16/
# Garraioa eta azpiegiturak

## Garraioa Behe Bidasoan — 2020

| Hiriko eta hiri arteko autobusak | Bidaiari kop. |
|---|---|
| Irun-Irun | 1.171.304 |
| Hondarribia – Donostia (N1) | 545.833 |
| Hondarribia – Donostia (AP8) | 136.077 |
| Hondarribia – Donostia (EHU) | 80.817 |
| Hondarribia – hospital – Txingudi MG | 58.811 |
| Irun – Donostia (N1) | 443.327 |
| Irun – Donostia (EHU) | 13.424 |
| Hondarribia – Irun | 632.343 |
| Hondarribia – Anoeta | 1.193 |
| Hondarribia – Donostia (gauekoa) | 9.046 |
| Hondarribia – Irun (gauekoa) | 1.493 |
| **EuskoTren** | |
| Irun | 1.619.626 |
| Donostia-Hendaia | 5.174.147 |
| **ADIF** | |
| Eskualde artekoak | 6.575 |
| Linea handiak | 12.059 |
| Aldirikoak | 375.537 |
| **Itsas Linea** | |
| Hondarribia-Hendaia* | 204.000 |
| **Donostia-Hondarribiko aireportua** | |
| Bidaiariak | 83.869 |
| Operazioak | 2.321 |

Iturria: AUIF, Ekialdebus, EuskoTren, Renfe, Jolaski* (azken datua), Aena

## Errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak — 2020

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Enpresak** | **Kamioak** | **Enpresak** | **Kamioak** | **Enpresak** | **Kamioak** |
| Ibilgailu arinak | 99 | 140 | 8 | 13 | 107 | 153 |
| Ibilgailu astunak | 193 | 1.206 | 8 | 12 | 201 | 1.218 |
| **Guztira** | **292** | **1.346** | **16** | **25** | **308** | **1.371** |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

# Errepideetako trafikoa

**Ibilgailuen eguneroko batez besteko zirkulazioa Behe Bidasoko errepideetan barrena** **2020**

| **Irungo ordainlekua (A8)** | **Ibilgailu kop.** |
|---|---|
| Donostiara bidean | 15.787 |
| Frantziara bidean | 15.363 |
| Guztira bi norabideetan | 31.150 |
| **Beste errepide batzuk*** | |
| N-1 | 41.231 |
| N-638 (Irun-Hondarribia) | 26.825 |
| N-121-A | 16.921 |

Iturria: Bidelan, Gipuzkoako Foru Aldundia

*2019ko azkeneko datuak

# 17/ Zerbitzuak

**Zerbitzuen establezimenduak, jarduera motaren arabera** **2020**

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Merkataritza, garraioa eta ostalaritza | 2.073 | 421 | 2.494 |
| Informazioa eta komunikazioak | 89 | 24 | 113 |
| Finantza jarduerak eta aseguruak | 110 | 23 | 133 |
| Higiezinen jarduerak | 101 | 28 | 129 |
| Jarduera profesionalak eta laguntzaileak | 705 | 213 | 918 |
| Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna | 486 | 149 | 635 |
| Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak | 441 | 91 | 532 |
| **Zerbitzuak Guztira** | **4.005** | **949** | **4.954** |

Iturria: Eustat

# 18/ Ekipamenduaak

| | 2020 |
|---|---|
| **Kirol ekipamenduak** | |
| Artaleku eta Azken Portu polikiroldegia, bazkide kopurua | 7.946 |
| Hondartza polikiroldegia, bazkide kopurua* | 4.580 |
| Hondarribiko Kirol Portua, eskalen kopurua | 323 |
| Hendaiako Kirol Portua, eskalen kopurua | 772 |
| **Kultur eta aisialdi ekipamenduak** | |
| OIASSO Erromatar Museoa, bisitari kopurua | 11.489 |
| Plaiaundiko Parke Ekologikoa, bisitari kopurua (azkeneko datua) | 8.629 |
| **Liburutegiak** | |
| Carlos Blanco Aguinaga CBA Kultur Gunea | |
| • Bisitari kopurua | 80.935 |
| • Bazkide kopurua | 32.593 |
| Zuloaga Etxea | |
| • Bisitari kopurua | 43.009 |
| • Bazkide kopurua | 9.338 |
| **Amaia Kultur Zentroa** | |
| • Erabiltzaileak | 26.298 |
| • Jarduerak | 363 |
| **Irungo Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa** | |
| • Konserbatorioa, ikasleak | 90 |
| • Musika eskola, ikasleak | 600 |
| **Hondarribiko Musika Eskola,** ikasleak* | 480 |
| **Ficoba, Erakustazoka** | |
| • Azokak/Erak. | 6 |
| • Bilerak | 174 |
| • Bisitariak | 40.000 |

*Azken datua



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

## Eskerronak

AENA - DONOSTIA-HONDARRIBIKO AIREPORTUA
AUIF
BIDELAN
DEUSTO UNIBERTSITATEA
EGAILAN
EKIALDEBUS
EKOETXEA TXINGUDI, PLAIAUNDIKO PARKE EKOLOGIKOA
EUSKADIKO KIROL PORTUAK
EUSKOTREN
EUSTAT - EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
FICOBA, GIPUZKOAKO ERAKUSTAZOKA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINTZA OROKORRA
HENDAIAKO UDALA
HONDARRIBIKO SAN PEDROKO MARINELEN KOFRADIA
HONDARRIBIKO UDALA
INE
IRUNGO UDALA
JOLASKI
LANBIDE
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA
OIASSO ERROMATAR MUSEOA
RENFE
UPV/EHU

**www.bidasoa-activa.com**
Hendaia kalea, 8 · Ducoureau Jauregia · 20301 Irun · Gipuzkoa

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

www.bidasoa-activa.com